



URTEKO FINANTZA PLANA 2026

Aurrekontuen urtarilaren 25eko 3/2023 Foru Arau Orokorrak zehazten duenez, ordainketen denbora banaketa egokia lortzeko eta zorpetze beharren balioespena behar bezala egiteko, Arabako Foru Aldundian ogasun, finantza eta aurrekontuen arloko eskumena duen sailak urteko finantza plan bat egingo du.

394/96 Foru Aginduak Arabako Foru Aldundiaren finantza plangintzarako jarraibideak ezartzen ditu, eta urteko finantza plan hori Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak egingo duela xedatzen du.

1. Efizientzia konpromisoa finantza baliabideen kudeaketan

Aurrekontuei buruzko urtarilaren 25eko 3/2023 Foru Arau Orokorrean onetsitakoa betetzeko, beharrezkoa da kobrantzen eta ordainketen finantza fluxuen aurreikuspen bat egitea dauden finantza baliabideak optimizatzeko, eta, horrela, Arabako Lurralde Historikoan ahalik eta etekin ekonomiko eta sozial handiena lortzeko.

2. Ordainketak egitea

Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak ezartzen ditu sailek igorri dituzten proposamenetan adieraziko ordainketa datak, eta ordainketak egiteko egunak aldatu ahal izango ditu Arabako Foru Aldundiaren finantza baliabideen kudeaketa optimizatzea ahalbidetzen duten egunetara.

2.1. Data jakina duten ordainketak

Ondoren aipatzen diren ordainketak kontzeptu bakoitzerako ezarritako epemugetan egingo dira, indarrean dagoen araudia aplikatuz.

- Ekarpinak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari.
- Kupoa Estatuko Administrazio Orokorrari
- Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsa.
- Aurrekontu esleipena Arabako Batzar Nagusiei.
- Hileko nomina.
- Epe labur, ertain edo luzeko zorpetzeari egotz dakizkikeen betebeharrak.
- Gizarte Segurantza, eskubide pasiboen kuotak, Muface, Elkarkidetza eta Mutua Foral de Álavaren likidazioak.
- Transferentziak foru erakunde autonomoei, foru sozietate publikoei eta foru fundazioei.



- Bestelako ordainketa batzuk, Eusko Jaurilaritzarekin, toki erakundeekin eta abarrekin sinatutako hitzarmenak direla-eta.
- Zerga itzulketak, ordaintzeko epemugarekin, bereziki pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren urteko kanpainako itzulketak.
- Nekazaritza jarduera lehenago uzteagatiko ordainketak (Feaga).

2.2. Ordainketa arruntaren datak

Gainerako gastuetarako, eta aurreko apartatuan jasotako ezohiko ordainketa epeak eta prozedurak alde batera utzi gabe, ordainketa aginduak astero egiten dira, halako moldez non kontabilizatutako obligazio gehienak haien kontabilitate balidazioa egin ondorengo 10 egun balioduneko epean igortzen baitira.

Aurreikusitako epe horrekin, egindako kalkuluen arabera, kasu horietan ordainketarako batez besteko aldiak jarraitu egingo du eragiketa ekonomikoetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak onesten dituen araudian ezarritako epeak baino laburragoa izaten.

Aurreko paragrafoetan zehaztutako jarduketek, denen artean, Arabako eragile ekonomikoei ahalik eta likidezia handiena ematen laguntzen dute, aldundiak eragile horiekin dituen betebeharrak ekonomikoei dagokienez.

2.3. Ordainketak erakunde autonomoei, sozietate publikoei eta foru fundazioei.

Erakunde autonomoek, sozietate publikoek eta foru fundazioek Arabako Foru Aldundiari funtsen transferentzia bat eskatzen badiote, eskaerarekin batera aurkeztu behar dituzte beren kontu korronteen likidezia egoera eta eskatutako funtsen beharra egiaztatzen duen ekonomia eta finantza arloko informazioa, epe laburrean aurreikusitako kobrantza eta ordainketen egutegian oinarritua, bai eta hurrengo hiru hilabeterako aurreikusitako zenbatekoen hilez hileko aurrerapena ere.

Emandako informazioan oinarrituta, Finantza Kudeaketako Zerbitzuak txosten bat egiten du, eskatutako funtsak erabiltzeko baimena ematen duena edo ezohiko inguruabarrak planteatzen dituen, ondoren zuzenketak egin daitezzen.

3. Epe luzerako finantzaketa baimentzea

Arabako Lurralde Historikoaren 2026rako Aurrekontua Gauzatzeari buruzko abenduaren 16ko 20/2025 Foru Arauak Arabako Foru Aldundiari baimena ematen dio epe luzeko zorpetze eragiketak egiteko, baldin eta 2026ko abenduaren 31ko foru zor bizia 520.544.993,25 eurotik gorakoa ez bada, ekitaldi horretako aurrekontu beharrak estaltze aldera.

Baimen hori zorpetze eragiketa bat edo batzuk formalizatzeko erabili ahal izango da, merkatuek ahalbidetzen dituzten finantza baldintza onenetan, une bakoitzean egokienak diren modalitatea, epeak eta erreferentziak hautatuta.



4. Epe laburreko finantzaketa

Alde batetik, 2026ko ekitaldian, Foru Diruzaintzan likidezia faltaren egoerak konpontzeko, Arabako Foru Aldundiak beharrezko deritzen finantza eragiketa guztiak hitzartu ahal izango ditu, kapital merkatuan horretarako dauden baliabideak erabiliz.

Bestalde, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak, 2021eko urriaren 15eko bileran, onespena eman zion Eusko Jaurlaritzari egin beharreko ekarpenen ordainketa egiteko zero interes tasa duten ohiko geroratzeen egutegiari. Era berean, ekarpenen ordainketa zerga sarreraren egutegira egokitzeko ezohiko geroratzeak eskatzeko aukera ere onetsi zuen.

Likidezia erabilgarritasun egoerek hala eskatuz gero, aurreko paragrafoan adierazitako ezohiko ordainketa geroratzeak eskatuko dira.

5. Soberako saldoek sortutako etekina optimizatzea

Azaldutakoari dagokionez, foru diruzaintzaren egoerak diruzaintzako soberakinak kokatzeko eragiketa puntualak egitea ahalbidetzen duenean, Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak, kaudimena, likidezia eta segurtasuna uztartuta, diruzaintzako soberakinak errentagarri egitea ahalbidetzen duten aukerak erabili ahal izango ditu.

6. Urteko finantza plana

Abiapuntutzat hartuta 2026ko urtarrilaren 1eko hasierako saldoa eta diruzaintza 2025eko abenduaren 31ko itxierakoa bat datozela, aurreikusitako kobrantzen eta ordainketen hilez hileko banaketa egin da.

Kontuan hartu dira aurreko aurrekontuarekin alderatuta 2026ko ekitaldirako onetsitako aurrekontuan aurreikusi diren aldaketak.

Vitoria-Gasteiz.

Yolanda Jiménez Pezonaga

Finantza Kudeaketa zerbitzu burua
Jefa del Servicio de Gestión Financiera

Iñaki Arrizabalaga Ormaechea

Finantza eta Aurrekontu zuzendaria
Director de Finanzas y Presupuestos





2026KO FINANTZA PLANAREN HILEZ HILEKO XEHETASUNA

EUROAK MILAKOTAN	URTARRILA	OTSAILA	MARTXOA	APIRILA	MAIATZA	EKAINA	UZTAILA	ABUZTUA	IRAILA	URRIA	AZAROA	ABENDUA
HASIERAKO SALDOA	288.831	177.104	316.075	315.757	409.332	142.579	153.767	266.639	285.231	330.990	512.897	389.796
DIRU SARRERAK												
HELBIDERATZE FISKALAK	2.473	372.684	257.054	316.779	140.771	223.478	343.017	153.661	252.371	408.339	164.602	128.156
HAMABOSTALDIKO DIRU SARRERA	6.809	1.251	6.156	11.265	5.129	1.029	12.392	1.870	5.915	12.710	1.546	7.201
DIRU SARRERA: GIZ. SEGUR. DIRUZAIN OROK.	15.751	15.296	15.785	15.923	15.851	15.901	31.000		31.868	16.195	16.318	31.000
EGUNEKO SARRERA	18.674	34.250	29.847	17.322	15.108	41.786	47.818	8.838	17.569	21.374	20.872	42.301
DERRIGORREZKO DIRUBILKETA AGENTZIA	1.272	1.859	1.178	1.197	1.122	1.814	1.695	1.448	1.013	1.255	1.252	1.681
E/L ZORPETZE ERAGIKETAK									77.122			
BEZ ETA ZZBB DOIKUNTZAK	14.429			146.900			166.900			166.900		112.900
EKARPENEN LIKIDAZIOA - DOIKUNTZ. FUNTS OROK.						85.029						
BESTELAKO DIRU SARRERAK (FEAGA)		7.206	4.568		3.202	4.629	7		479	3.352	13.044	
KONTU ARRUNTEN INTERESAK	1.376			1.681			701		679	1.024		57
DIRU SARRERAK, GUZTIRA	60.784	432.546	314.588	511.067	181.183	373.665	603.530	165.817	387.015	631.149	217.633	323.295
ORDAINKETAK												
NOMINA	5.737	4.328	3.159	3.212	3.144	6.072	2.985	3.266	2.987	3.012	6.007	3.050
GOFE	23.686	17.931	19.600	17.950	21.450	20.500	20.201	15.500	22.122	19.550	20.263	20.359
GAINERAKO ERAKUNDEAK ETA FORU SOZIJETATEAK	10.270	3.570	5.277	4.054	4.741	3.685	12.053	5.387	2.623	3.366	4.887	5.821
BEZ-AREN ITZULKETAK	20.374	9.087	40.000	40.000	40.000	40.000	40.000	30.000	35.000	43.200	35.100	35.000
ERRENTAREN ITZULKETAK		1.385	9.946	70.399	58.757	43.739	12.107	2.195	967	5.000	7.694	5.337
SOZIJETATEEN ITZULKETAK	2.212			125	144		600		300	218	69	36.000
ZERGEN BESTE ITZULKETA BATZUK		3.526	222	359		12.534	7		538	492	3.152	1.788
FINANTZA KARGA	27	2.645	16.313	27	2.645	16.313	955	1.392	17.869	1.232	1.392	19.632
EJ-REN EKARPENA.		189.993		189.993		189.993	108.722	81.270		265.990	227.992	
GERORATZEA EKARPENAK			189.993		189.993		189.993		189.993			265.990
EKARPENAREN LIKIDAZIOA- DOIKUNTZ. FUNTS OROK.		21.592				5.312						
ESTATURAKO KUPOA					104.930				53.384			53.384
TEFF	80.975		12.659	79.000			80.000			79.582		
FEAGA		7.206	4.568		3.202	4.439	207		10	3.811	13.044	
BESTE ORDAINKETA BATZUK	29.230	32.313	13.170	12.374	18.930	19.890	22.826	8.215	15.463	23.790	21.135	29.821
ORDAINKETAK, GUZTIRA	172.511	293.576	314.906	417.493	447.936	362.477	490.658	147.225	341.256	449.243	340.734	476.182
AMAIERAKO SALDOA	177.104	316.075	315.757	409.332	142.579	153.767	266.639	285.231	330.990	512.897	389.796	236.909